
Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1988



Memoria
1988
Real Academia de la Lengua Vasca
Euskaltzaindia





EUSKALTZAINDIA
AZKUE BIBLIOTEKA



Euskaltzaindiaren
Oroit-Idazkia
1988

AURKIBIDEA

1.- Ekintza Orokorrak	7
1.1. Bilkura eta akademi bilerak	9
1.2. Batzarre txostenak	10
1.3. Ekintza ordezkagarriak	12
1.4. Zenbait ekintza eta gertakari akademikoren aipamena	14
2.- IKER Saileko Batzordeak	17
2.1. Hiztegi batzordea	18
2.2. Gramatika Batzordea	20
2.3. Dialektologi batzordea	22
2.4. Onomastika batzordea	23
3.- JAGON Saileko Batzordeak	27
3.1. Literaturarekiko langintza	28
3.2. Herri literatura batzordea	31
3.3. Etsaminak	32
4.- Akademi Zerbitzuak	33
4.1. Administralgoa eta bulegoak	34
4.2. Azkue Biblioteka batzordea	35
4.3. Argitarapenak	39
4.4. Itzulpen eta kontsulta zerbitzua	41
5.- Ekonomia	43
5.1. Ekonomi batzordea	44
5.2. 1988. urteko egoera balantzea	44
6.- Aurkitegia	45

1.- Ekintza Orokorrak



Juan Mari Lekuonaren
euskaltzain sarrera.

1.1. BILKURA ETA AKADEMI BILERAK

Euskaltzaindiak bere hileroko batzarre arruntak 1988. urtean, era hone-
tara egin ditu, hots: sei hilabetekoak, binaka, Gipuzkoako Foru Diputazioan;
Bizkaiko Foru Diputazioan, bat eta beste bana, Bidarrain (Iparraldea), Oiartzu-
nen (Gipuzkoa), Gernikan (Bizkaia) eta Uitzin (Nafarroa).

Horrez gain, bai Zuzendaritzak eta bai batzorde orok mota desberdine-
tako lan-bilkura ugari egin dituzte.

Ohizko bilkurez aparte, urtean zehar zenbait mendeurren eta gertakari
ospatu ditu, batzarre ireki eta jardunaldiak antolatuz, alegia:

- Martxoaren 25, 26 eta 27an, Nafarroa Behereko Bidarra herrian,
Piarres Moulier "OXOBI" idazle eta euskaltzain zenaren mendeurrena. Horren
inguruan, VIII. Lexikologi Jardunaldiak burutu dira "Hotel Noblia" delakoan. Hi-
rugarren egunean, Artetxea trinketean, omenezko batzarre irekia egin da.
Arrabit auzapez-ordea eta Luis Villasante Euskaltzainburuaren gain, hiru hizla-
rik parte harturik: Jean Haritschelhar, Euskaltzainburu-ordea; Pierre Charritton,
euskaltzaina eta André Luberriaga, Euskaltzaleen Biltzarreko Burua.

- Uztailaren 1ean, Bizkaiko Foru Diputazioan, Resurrección Maria Azkuek
irabazi zuen Euskal Katedraren mendeurrena ospatu da. Tomas Uribeetxebarria,
Bizkaiko Kultur Diputatuak irekitzen du batzarrea eta Euskaltzainburuaren
sarrerako hitzaldiñoaren ondoren, geroago aipatuko diren hiru txosten irakur-

tzen dira; Pilar Valiente, Eusko Jaurlaritzako Pedagogi Berrikuntzarako Zuzendari Orokorraren hitzen ondoren, Jose Alberto Pradera, Bizkaiko Diputatu Nagusiak mendeurren-ospakizun honi amaiera ematen dio.

- Uztailaren 29 eta 30ean, Oiartzungo Udaletxean, Juan Mari Lekuona euskaltzain berriaren sarrera dela medio, hileroko bilkura arruntez gain, Onomastika Batzordearena ere egin da. 30ean, arauzko batzar irekiaren bidez, Juan Mari Lekuona herriko semeak sarrera hitzaldia egin du, Jon Iñarra alkate jaunaren eta Luis Villasante Euskaltzainburuaren sarrera hitzen ondotik. Erantzuna, Jean Haritschelhar Buru-ordeak egin dio.

- Irailaren 29, 30 eta Urriaren 1ean, Gernikan 1888an egin ziren Euskal Jaien mendeurrenen egitarau orokorraren barruan, Udaletxean, hileroko euskaltzainen bilkura egin da. Kultur Etxean, egun bi iraunez, I. Estilistika Jardunaldiak egin dira; ostiral-larunbatean, IX. Lexikologi Jardunaldiak eta larunbatean, baita ere, Onomastika Batzordearen lan-bilkura.

- Azaroaren 26 eta 27an, Nikolas Ormaetxea "ORIXE" idazle eta euskaltzain zenaren mendeurrena ospatuz, Larraun ibarreko Uitziko Kontzeju-Etxean, X. Lexikologi Jardunaldiak burutu dira, hileroko bilkuraz gain. Igandean, "ORIXE"ren omenezko batzarre irekia egin da. Juan Cruz Martirena herriko alkatearen eta Euskaltzainburuaren sarrera hitzen ondoren, beste toki baten zehaztuko diren hiru txosten mardul irakurriz bukatu da ehunurteburu hau.

1.2. BATZARRE TXOSTENAK

Hilero-hilero, ia beti, izaten dira txosten akademikoak, bai batzarre arruntetan, gai solte edo librean, edo gai berezi bati lotuak, mendeurren edo ostantzeko edo bestelako ospakizun bat denean. Akademi baten xede nagusiari dagokion bezala, ikerkuntza helburua izaten dute gehienetan txostenak.

Gai solteetan, 1988. urtean emandako txostenetan hauek azpimarra daitezke:

- "Gipuzkoako euskal toponimiazko materialeak", Luis Mari Mujika urgazleak aurkeztua.

- "Euskaltzaindiaren sorrera Karmelo Etxegaraireren gutunetan", Jose Ignacio Telletxea Idigoras urgazleak.

- Luis Mitxelenak "Stress and pitch" tituluarekin hasitako txostenaren segida egiten du Maite Etxenike andereak, euskaltzain zenak utzitako paperak arakatur.

- "Gu bagoaz" - "baita ni"? ala "ni ere bai"? izeneko txostena, gaur eguneko hizkuntzaren zenbait akats salatuz, Ambrosio Zatarain urgazleak.

- "Euskal Herriko Hizkuntz Atlasgintza 1987an", Gotzon Aurrekoetxea eta Xarles Videgain Dialektologi batzordekideak.

- "Testamentu irekirako ereduaren bidean", Andres Urrutia Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematiakoaren batzordekide eta Ondarroako notariak.

- "Euskal konpletibatzaileak: bilduma baterako" izenekoak, Endrike Knörr euskaltzainak.

- "Un documento inédito de la estancia del Licenciado Andrés de Poza en los Países Bajos" izenekoak, Carlos González Etxegarai "Hemeroteca Nacional"eko Zuzendari eta Bizkaiko Artxibari eta Bibliotekari ohiak igorria.

- "Euskal lexiko etnografikoaren ikuspegi txiki-labur bat", Juan Garmendia Larrañaga urgazleak. Oraintsu berak egindako Dotoradutzako tesiari buruz, hain zuzen.

- "Euskal filologiazkoak nahas-mahas", Patxi Altuna euskaltzainak.

Gai edo gertakizun bereziei dagokienak:

. "OXOBI"ren mendeurrenean, txosten hauek irakurri dira:


- Jean Haritschelhar Buru-ordeak, "Oxobi olerkaria".

- Pierre Charriton euskaltzainak, "Bidarra, euskara eta euskaltzaleak".

- André Luberriaga, Euskaltzaleen Biltzarreko Lehendakariak, Oxobi eta Louis Dassance euskaltzainei buruzko zenbait egitasmo.

. Euskal Katedraren ehunurteburuan:

- Jose Antonio Arana Martija urgazleak, "Euskal Katedraren lehiaketa eta eraginaz".



Euskal Katedraren mendeurrena. Jose Antonio Arana Martija (hizlaria), Pilar Valiente, Tomas Uribebarria, Mari Karmen Garmendia, Jose Alberto Pradera, Luis Villasante.

- Alfonso Irigoyen euskaltzainak, "Azkue, Arana Goiri eta Unamuno".
- Ines Pagola andereak, "Azkue versus Arana Goiri: hitz berriez".
- . Juan Mari Lekuonak bere sarrera hitzaldian, gai hau erabili du: "Erdi-ahozkotasunaren literatur estiloaz".
- . "ORIXE" sortu zeneko ehunurteburua dela eta:
 - Patxi Altuna euskaltzainak, "Orixek Jesusen Lagundian eman zituen urteak".
 - Jose Mari Aranalde urgazleak, "Euskaldunak: Orixek bere berri ematen, edo egilea protagonista".
 - Juan Mari Lekuona euskaltzainak, "Izaera eta ofizio bereziko pertsonaien erretaula Euskaldunak poeman".

1.3. EKINTZA ORDEZKAGARRIAK

- Urtarrilean, Gabriel Urralburu Nafarroako Gobernu Buruarekin izan du audientzia Zuzendaritzak, hiru programa nagusien gain, Nafarroako herrien eta auzoen izendegintza eta Bonaparte Printzearen lanen mikrofilmazteaz gehienbat, arituz.
- Bilboko "Círculo Vasco"k, Martxoan, Barcelonan, antolatu duen euskal liburu erakusketan, Jose Antonio Arana Martija joan da ordezkari eta antolaki-zunetan laguntzaile.



Nikolas Ormaetxea «Orixe».

- Martxoaren 11n Euskal Katedraren mendeurrena dela eta, Resurrección Maria Azkue, Sabino Arana eta Miguel Unamuno hiru euskaldun ospetsuei omenezko monumentuaz hitz egiten egon dira, Jose Maria Gorordo Bilboko Alkatearekin, Alfonso Irigoyen eta Federico Krutwig euskaltzainak eta Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordea.

- APETI "Asociación Profesional Española de Traductores e Intérpretes" delakoak Apirilaren 14, 15 eta 16an egindako Biltzarrean, Xabier Mendiguren urgazleak ordezkatu du Euskaltzaindia.

- Euskadi Irratiak Bilbon, Apirilean, antolatutako bere 5. urteurren ospakizunean Alfonso Irigoyenek ordezkatu du Euskaltzaindia.

- Maiatzaren 5ean, Argomaizko "Parador"ean Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzak eta Ogasun Saileko Ordezkariek hasi dituzte Herri Aginte eta Euskaltzaindiaren arteko Hitzarmen prestaketa lanak. Euskaltzaindiaren aldetik, Juan San Martin, Diruzaina; Juan Jose Zearreta, Ekonomi Eragilea eta Jose Luis Lizundia, Idazkari-ordea izan dira partaide.

- Maiatzaren 23ean "El Correo Español-El Pueblo Vasco"k 1988. urteko sari banatze egintzara, Alfonso Irigoyen euskaltzaina joan da Euskaltzainburuaren ordezkari.

- Maiatzaren 28an, Lekeitioko herriak, bere Udalak antolaturik, Eusebio Erkiaga euskaltzain lekeitiarrari egindako omenaldian Alfonso Irigoyen euskaltzainak ordezkatu zuen Euskaltzainburua.

- Maiatzaren 29an Bizkaiko Ikastolen Elkarteak antolaturiko IBILALDIA 88an, Bilboko Txurdinaga auzoan egindakoan, hain zuzen, Pello Salaburu euskaltzainak ordezkatu du Euskaltzainburua.

- Uztailaren 31n, D. Manuel Lekuona Euskaltzainburu zenaren omenaldian, Juan San Martin euskaltzainak, Gipuzkoako Ordezkariek bezala, eraman du Euskaltzaindiaren ordezkari.

- Abenduaren 16an, Euskaltzaindiko Zuzendaritza osoa Eusko Legebiltzarreko Mahaiak hartu du. Erakunde parlamentari honek Jesus Egiguren Buru delarik, hizkuntz Akademiari bere lanen omenezko aitortpen bat egin diolarik.

- HABEko Kontseiluko bilkuretan parte hartu du Juan San Martin Jagon Sailburuak, erakunde horretan Euskaltzaindiaren ordezkari baita. Baita urtean zehar Herri Erakunde horrek egin dituen beste zenbait ekintzetan ere.

- Euskaltzaindiak bere ordezkari zuzen den Jean Haritschelhar eta beste zenbait euskaltzain oso edo urgazleren bidez, Jaurlaritzaren Euskararen Aholku Batzordean urtean zehar egin diren bilkura eta langintzetan parte hartu du.

- Eusko Ikaskuntzako Zuzendaritzan Euskaltzaindiaren Ordezkariek bezala, urtean zehar egindako zenbait bilkuretan, Jose Maria Satrustegi Idazkariak parte hartu du.

- Urtean zehar, "Academia de la Llingua Asturiana"rekin zenbait harreman izan dira, beraren egoera larritasun batzuk direla medio.



Piarres Larzabalen euskaltzain sarrera Azkainen (1963). Krutwig, Villasante, Iratzeder, Irigoien, Larzabal, Dassance, Lafitte, Eppherre, Etchezaharreta, Irigarai Akesolo, Minier (Auzapeza), Haritschelhar.

1.4. ZENBAIT EKINTZA ETA GERTAKARI AKADEMIKOREN AIPAMENA

- Piarres Larzabal euskaltzaina hil da Zokoan Urtarrilaren 12an, bere hutsartea betetzeko, Txomin Peillen hautatzen da Apirilaren 29ko bilkuran, hautagai bakarra izanik.

- Luis Mitxelena euskaltzain zenaren ordez, Ibon Sarasola izan da hautatua Urtarrilaren 29an egindako bilkuran.

- Martxoaren 25ean, bere jaioterrian egindako bilkuran, Jean Pierre Irachet idazlea, "Otto Pierre" izenordearekin ezagunagoa, izendatzen da euskaltzain ohorezko.

- Maiatzaren 19ean, Athenetan, Hetaireia paradosiakon Spoudon deitutako Greziako kultur eta tradizioak ikertzeko erakundearen partaide izendatzen dute Federico Krutwig euskaltzaina.

- Maiatzaren 19an, Euskal Herriko Unibertsitateko Gasteizko "Campus"ean, bere dotoradutza lortzen du "Hitz konposatuak euskaraz" ikerlanarekin, Miren Azkarate euskaltzain urgazle eta Gramatika batzordekideak.

- Ekainaren 7an, hil da Bilbon Juan Gorostiaga euskaltzaina. Bere hutsartea betetzeko bi hautagai aurkezten dira: Xabier Kintana eta Jose Antonio Arana Martija, azken hau hautatzen delarik Urriaren 28ko bilkuran.

- Ekainaren 12an, Migel Javier Urmeneta euskaltzain urgazlea hil da Iruñean, hiriburu honetako Alkate eta Nafarroako Foru Diputatu bezala, euskararen sustapenerako hainbeste lan egindakoa.

- Irailaren 3an, bere sorterri eta urte askotan auzapez izandako Uztaritzen, egiten zaio mendeurren ospakizuna Louis Dassance euskaltzain zenari. Akademiaren izenean, ordezkari eta hizlari, Jean Haritschelhar Buru-ordeak egiten du, euskaltzain oso eta urgazle andana bat bertan delarik.

- Irailaren 8an, Bizkaiko Foru Diputazioan, bilkura akademiko bat egiten du Euskaltzaindiak, Euskal Herriko, Mexikoko eta Estatu Batuetako Coloradoko Durango hiru hirien elkartze eta hitzarmena dela eta. Luis Villasante Euskaltzainburuak, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyenek aurkezten dute txosten bana.

- Irailaren 5etik 30era, Erreterian, eta lehenago, Apirilaren 4tik 10eran Portugaleten, bertako Udal Kultur Batzordeak eskaturik, Kartografia Erakusketak egin ditu Euskaltzaindiak, beraren Biblioteka zerbitzuaren bidez.

- Urriaren 10ean, Erreterian, Udalak eskainita, Luis Mitxelenaren omenez, Juan San Martin eta Endrike Knörrek eman dute hitzaldi bat. Jarraian, bere jaiotetxean oroitarri bat jarri delarik.

- Abenduaren 3an, Zumaiako Udalak, Julene Azpeitiari bere mendeurrenean antolaturiko omenaldian, Juan San Martin Gipuzkoako Ordezkariek parte hartu du.

- Abenduaren 15ean, Gasteizen, Euskal Herriko Unibertsitateak "doctor honoris causa" izendatu du Jean Haritschelhar Euskaltzainburu-ordea. Bertara Zuzendaritza osoa eta zenbait euskaltzain oso eta urgazle joaten direlarik.

- Abenduaren 30ean, Euskaltzaindiko Zuzendaritza berriztatzeke arauzko bozketak egin dira, karguak honela gelditu direlarik:

Euskaltzainburu: Jean Haritschelhar,

Buru-orde: Juan San Martin,

Idazkari: Jose Maria Satrustegi eta

Diruzain: Jose Antonio Arana Martija.



Zuzendaritza berria: Arana, San Martin, Haritschelhar, Satrustegi.

2.- IKER Saileko Batzordeak

2.1. HIZTEGINTZA BATZORDEA

Batzorde honek hiru azpibatzerde berezi ditu, hots:

2.1.1. OEH - Orotariko Euskal Hiztegia

2.1.2. LEF - Lexiko Erizpideen Finkapena

2.1.3. EEBS - Egungo Euskararen Bilketa-lan Sistematikoa

2.1.1. OROTARIKO EUSKAL HIZTEGIA

1988. urtean Orotariko Euskal Hiztegiko lantaldeak, Ibon Sarasolaren zuzendaritzapean, hurrengo lanok burutu ditu, hots:

- Erredakzio lanak. Hiztegiaren beraren idazketaz den bezanbatean, hirugarren liburukiari dagokion zatia -**AZ**tik **BA** ingurura- bukatu da, eta laugarrenaren zati garrantzitsu bat ere bai, **BEL**-eraino heltzen dena.

- Zuzenketak. Idatzitako materialaren zuzentze, osatze eta bateratze lanari dagokionez, bigarren liburukiaren lehenbiziko eta bigarren zuzenketak egin dira. Hirugarren liburukiari dagokiona -hots, lan papereratua- Abendurako espero bazen ere izatea esku artean, ezin izan da burutu. Material guzti honen konprobatze eta proba-zuzentze lana egin izan da bigarren liburukitik falta zen azken laurdena edo, hirugarren liburukiaren hiru laurdenen gainean.

Bigarren liburukiari buruzko lanak bukatuak baldin baziren ere, informatikazko arazo teknikoek atzera erazi izan dute lanaren argitaratzearen prozesua: ordenazio alfabetikoan sortera zuten hutsak, zenbait zatiren errepikatzeak eta abar. Bitarte hau, zenbait zuzenketa eta azken ikutuak egiteko baliatuz, Urriaren 20an, behin betiko zinta entregatua izan da.

- Testu biluzketa. Hiztegirako gaiei dagokien aldetik, ordenadore bidez osorik biluztu dira zenbait testu: LEIZARRAGAREN obratik falta zitzaienak, hots, testamentu berri osoa, OIHENARTEN erretratuak, Mitxelenaren Idazlan Hautatuak liburua, Escualdun Cocinera, Michel ELISSAMBURUREN Frantziako hirur Errepublikaren ixtorioa laburzki, AZKUEREN Bein da betiko eta Batxi Guzur, ORIXEREN Quito-n arrebarekin.

Era berean, Luis Mitxelenak bildutako fitxetan **ER** bitarteko guztia sartu da, arrazoi bat edo bestegatik sartu diren fitxak honako hauek lirateke: "Cuadernos de Etnografía y Etnología de Navarra" aldizkaritik zenbait hitz eta informazio; Añibarroren Nekea Arindurik (ASJU 1987, 211-263) eta Altuberen Laztantxu eta Betargi liburuetatik ateratakoak; Gotzon Garateren Erderakadak, Koldo Izagierren Euskal lokuzioak, Ramon Etxezarretaren Hiztegi erotikoa liburuetako aurkibideak ere sartuak izan dira, eta baita Luis Villasantek prestatutako Cristaubaren icasbidea edo doctrina cristianaren bukaerako hiztegitxoak ere; Azkue

R.M. “Apéndice del Diccionario Vasco-Español-Francés” T-Z- bitartekoa: J. Arzamendi Términos vascos en documentos medievales de los ss. XI al XVII (D-Z); T. Etxebarria Lexicón del euskera dialectal de Eibar (F-Z); A. Salaberry Vocabulaire des mots basques bas-navarraï (E-Z); J.M. Iribarren Vocabulario navarro (B-Z).


2.1.2. LEXIKO ERIZPIDEEN FINKAPENA

Hiru Lexikologi Jardunaldi egin ditu 1988. urtean zehar. VIII.ak Bidarrain egin dira Martxoaren 25 eta 26an, hitz elkarketaren “eguzki-lore” motaren azterketa bukatuz. Andoni Sagarna, Kepa Altonaga, Martxel Ensunza, Juan Carlos Odriozola, Patxi Uribarren, Txomin Peillen, Tomas Uribeetxebarria, Jose Mari Larrarte eta Miren Azkarateren txostenak aurkeztu eta eztabaidatuz. Bestalde, baita ere leku-denborazko mugakizunezkoak eta posposizio direla-koak txostenak burutuak izan dira.

Batzordekideek lanean jarraitzen dute eta Irailaren hondarrean IX. Jardunaldiak Gernikan burutzen dira. “Bahuvrihi” eta “aditz elkarketari” buruzko txosten bi, Miren Azkaratek aurkeztuak. Patri Urkizu, Andoni Sagarna, Lourdes Otaegi eta Txomin Peillenek ere beste lau atalez ikerlanak plazaratu dituzte.

Urteko hirugarren jardunaldiak eta Batzordearen X.ak egin dira Azaroan, Nafarroako Uitz herrian. “Asmo elkarteak, izate elkarteak, ezkonberri elkarteak, elkarte sintetikoak, aposizioak eta hitz-andana ihartuak” izenburudun txostenak; berauek Jose Mari Larrarte, Beñat Oihartzabal, Tomas Uribeetxebarria, Martxel Ensunza, Juan Carlos Odriozola eta Mikel Zalbidek prestatuak izanik, arakatu dira. Ondoren, Hitz elkarketa 2 liburukia burutzeko plana onartua izan da eta Hitz elkarketa 3ri hasiera eman zaio.

Aipaturiko bi dossierren argitaratzea bideratzeaz gain, 1989. urterako “Eratopena” gaitzat hartuta jardunaldiren bat antolatzeko asmoa hartu du Batzordeak Uitzin.



LEF batzordeko batzu: Sagarna, Goenaga, Altuna, Odriozola.

2.1.3. EGUNGO EUSKARAREN BILKETA-LAN SISTEMATIkoa

Hiru lan burutu ditu Batzorde honek 1988. urtean:

1. XX. mendeko euskal produkzio idatziaren inbentarioa eta sailkapena.
2. "Corpus" a hautatzeko eredu estatistikoaren definizioa.
3. "Corpus" aren zedarriztapena.

Lehendabizikoari buruz, XX. mendean euskaraz zer argitaratu den jakiteko, Jon Bilbao eta Juan Mari Torrealdaireren bibliografiak erabiliz gain, Euskal Herriko liburutegi eta hemeroteka nagusienak arakatu dira. Hartutako argibide guzti honekin, 20.000 fitxa bibliografiko dituen datu-base informatizatu eratu du. Ohizko datuez gain fitxa bakoitzean lau sailkapen kode ezarri dira: epearena, euskalkiarena, testu motarena eta testu masarena.

Eredu estatistikoaren unibertsotzat XX. mendean argitaratu diren euskal testu horiek denek osotzen duten kontutan hartu da. Antzeko beste ikerketa batzuren etekinak kontutan hartu dira, bai ingelesez, espainieraz eta frantsezkoak ere. Eta 50.000 lematik gora lortzeko asmoz, 2.000.000 testu-hitzeko lagina hartzea erabaki.

Testu bakoitzari izendatu zaion kuota hauxe izan da, alegia: prosa arrunta, ikasliburuak, literatur prosa eta antzerkiari 50 testu-hitzeko bat; poesiari 200 testu-hitzeko bat; lan aipagarrienen multzoan sartu ez diren kazetaritzalanei 350 testu-hitzeko bat.

Lan osoaren eginkarritasuna frogatzeko eta bertan erabili beharreko metodologia eta erizpideak finkatzeko, froga pilotua egitea erabaki du EEBS Batzordeak.

Gerra aurreko obraz osatutako "corpus" a 60.000 testu-hitz ingurukoa da. Guztiak euskarri informatikoan ezarriak izan dira, erdiak hustuta eta lematizaturik daude, eginkizun hauek burutzeko programa informatikoak prestatu direlarik.

2.2. GRAMATIKA BATZORDEA


Urtean zehar Batzorde honek hamaika bilera egin ditu. Beste gai batzuren artean, perpaus elkartuen azterketari ekin dio gehienbat, "menderakuntza-ren" eta "koordinazioaren" arteko bereizketaz, lehendabizi. Ondoren eta koordinazioari zuzenkiago loturik, benetako "juntagailuen" eta gainerako "lokailuen" arteko bereizketa eginik. Azkenik, lokailuen azterketa ahalik eta xehekiengiteko bideak ezarri dira, alegia.

Gai orokor hauetan aurkeztu eta eztabaidatu diren txosten eta gaiak hurrengook izan dira, egile eta guzti, hots: “Juntagailuen sailkapena”, Beñat Oihartzabal; “Juntagailu kopulatiboa”, egile berbera; “Perpaus konposatua”, Jose Antonio Mujika; “Euskal Gramatika. Lehen Urratsak (EGLU) 1 gaien aurkibidea”, Alan King; “Perpaus konposatua 2”, Jose Antonio Mujika; “Perpaus txertatuak”, Patxi Goenaga; “Lotgailuak”, Patxi Altuna; “Kontzesioari dagokion lotgailuak”, Jose Antonio Mujika; “BADA”, Patxi Altuna; “Juan de Beriain-en 1621.eko Nola ençun bear den Meza liburuari buruzko azterketa”, Lino Akesolo; “ALTA, ATA, ALTA BADA”, Pierre Charriton; “Lotgailuen azterketeetarako ekarpen bat”, Alan King; “Perpaus adbersatiboak”, Patxi Altuna, “Izan dadin...”, Andolin Eguskitza; “Baizik eta baina”, Alan King; “Ilatiboak”, Patxi Altuna; “Nahiz... nahiz banakaia”, Andolin Eguskitza; “Dena dela eta Dena den lo(t)gailuak”, Miren Azkarate; “Gazteleraren COMO juntagailu polisemikoak euskararen baitan izan ditzakeen ordezkoen problematika: 1 Subordinazioaren esparrua”, Igone Zabala Unzalu eta Juan Carlos Odriozola.

BALIABIDE INFORMATIKOEK LAGUNDURIKAKO EUSKAL GRAMATIKA-REN IKERKETA (BILEGI)

Euskaltzaindiak Alan King Gramatika batzordekidea hitzartu zuen BILEGI proiektua aurrera eramateko, alegia, Orotariko Euskal Hiztegiko “corpus”eko zerrendak eta zerrendaz kanpo perpausak informatikaren bidez, ikerketa ziurtapenak egiteko. Proiektu hau Eusko Jaurlaritzako Informatika Elkartearen (EJIE) laguntzaz burutzekoa izan da, nahiz eta urte honetan lortu ez.

Batzorde honen beste emaitza bat Euskal Gramatika. Lehen Urratsak I-II (EGLU) (gai aurkibidea) izan da, argitalpen sailean geroago ziurta daitekeenez.



2.3. DIALEKTOLOGI BATZORDEA

Batzorde honek bi zatitan lan egiten du:

2.3.1. Euskalkien ikerlanak

2.3.2. EHHA - Euskal Herriko Hizkuntz Atlasa

2.3.1. EUSKALKI IKERLANAK

1988. urtean Dialektologi Batzordeak egin duen lanaren parte handiena bibliografia berezitu baten oinarriak finkatzea izan da, bilkuren aktak xehetasun gehiagoz erakusten duten bezala. Bibliografiaz gain, ahozko dokumentuen bilketak direla eta ardura izan du gehienbat.

Bibliografia berezitu honen helburua, ikasle, irakasle eta bestelakoei, behar diren erakundeen babespean, zerbitzua eskaintzea litzateke. Ikertu da lehenik, fitxa bibliografikoen eredua, zientzi-alor honen bereizgarritasunak kontutan izanik. Alor eta azpialorretan banandurik. Bibliografia horretan sartu beharrezko liburuak ere erabaki dira, hain zuzen.

Joan den ikasturteko bigarren ardatza, ahozko bilketa izan da. Galdekizun berezituak aurkeztu dira alde batetik, eta euskara galzorian gune zenbaitean aplikatzeko aldakizuna burutu da. Bestetik, berau, 1989an Bizkaiko herrialdean, bereziki frogatuko da.

Ahazkotasunak berak eskaintzen dituen aberastasuna eta denbora berean, transkribaketaren orduan, dituen zailtasunak izan dira txosten eta eztabaida zenbaiten iturbideak.

2.3.2. EUSKAL HERRIKO HIZKUNTZ ATLASA

1. Inkestagintza. Datuak geroago zehatz mehatz agertuko badira ere, esan dezagun hemen jadanik 69 inkesta direla guztiz burututa daudenak. Ordutan esanik 10.500 lan-ordu, alegia. Oraindik hasi gabeak berriz, 37 inkesta bakar bakarrik. Hala eta guztiz ere, aitortu behar da, duela urte batzu proiektuan jarritako epeak kontutan harturik, atzerapen nabarmena daramala Atlasgintzak.

Bukatu berri dugun urtean, honako aintzinamendua ezagutu du Atlasgintzak:

Eskualdea	Eginda	Egiten	Hasi gabe	Guztira
Bizkaia	24	4	8	36
Araba	0	0	1	1
Gipuzkoa	27	3	6	36
Nafarroa	6	18	3	27
Lapurdi	4	5	6	15
Naf. Beherea	4	4	10	18
Zuberoa	4	5	3	12
GUZTIRA	69	39	37	145

Datu hauek joan den urtekoekin elkartuz zera lortzen dugu: 1988. urtean 36 herritan burutu direla inkestak, eta beste 39 egiten ihardun izan dela.

Inkestagintzan abiada ezagutu eta sortzen diren arazoei aurre egiteko urtean zehar bi bilera egin dira. Nondik norakoa aztertuz gain, puntu zenbaitetan orientabideak eta argibideak eman dira, osagarri eta betegarri diren bideak urratuz. Hala aurkeztu eta aztertu dira hurrengo txosten hauek, hots: Xarles Videgainek burututako “Jutsi: bildutako datu berriak edo interesgarriak”, edo “Inkestagintzaren zehaztasunaz”, “Adibide zenbait”, “Lexiaren inguruan Euskal Herriko Atlas Linguistikoaren inkestagintzan”, “Adibide zenbait Iribarren-en Voc-Nav. liburutik hartuak EHHako inkestagintzarako balio luketenak”, “Larrañe”, “Altzaiako adibidea”; bide beretik doa Gotzon Aurrekoetxeak Xarles Videgainekin eztabaidatu ondoren burututako “Diapositiben sailkapenerako” deitua.

2. Euskaltzaindia eta Centre National de Recherches Scientifiques (CNRS)en arteko hitzarmena. Aurten ekinaren porasuz ez bada ere, urrats zenbait eman da bide beretik, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritza, Euskaltzaindiaren arduradun eta CNRSeko Xavier Ravier ordezkariarekin. Une honetan, esan daiteke akordioa hurbilago nabari dela.

3. Inkestagintzaz kanpo egindako beste zenbait lan. Gestioingintza, administral harreman, tresneria, harreman zientifikoetako gutunieriaz landa, bi sortatzen bil daitezke iaz egindako lanak, hots:

- Lehena, Atlasgintzari buruzko gogoeta teknikoak eta horretaz egindako urratsak: kontsulta zientifiko-biografikoak, jardunaldiak, informatikagintza eta abar.

- Bigarrenik, Atlasgintza taldeari berari egindako kontsulta eta eskariei, erizpen edo/eta artikulu gisa erantzunez.

2.4. ONOMASTIKA BATZORDEA

1988. urteko Batzordearen lanik garrantzitsuena Nafarroako Herri Izen-

degigintza izan da, bertako Gobernu edo Diputazioak eskaturik. Lan honen aurreprestaketa Jose Maria Jimeno Jurio batzordekideak eraman du, Patxi Salaberriren laguntzarekin.

Lehen eremuko, alegia, egungo eremu euskalduneko lanak burutu dira, gelditzen ziren bi eskualdeak azterturik, hots, Anue, Ultzama, Imotz, Araitz eta Basaburua ibarrak hartzen dituen eskualdearenak eta Sakanakoak. Beronen onarpena, Martxoan, Nafarroa Behereko Bidarrain egindako osoko bilkuran Euskaltzaindiak onartu du.

Jarraian, eremu mixtokoekin jardun du hasi Erronkaritik eta Lizarraraino, Agoitz eta Iruñerria tarte izanik. Boste zerrendetan bildurik, Irailean, Gernikan egindako euskaltzainen bilkuran onartu da eremu honetako izendegi osoa.

Hiru azken hilabeteetan eremu erdaldunari lotu zaio Batzordearen egin-kizuna, Zangoza merinaldeko zerrenda biak eta Lizarrakoaren erdialdea azertu direlarik.

Beste erakunde batzuren artean, RENFERi bere VI Zonaldeko geltokien eta geralekuen euskal izendegia prestatu zaio.

Euskal Herriko mendateen bigarren zerrenda bildu, azertu, onartu eta jakin arazi du. Euskal Mendigoizaleen Federakundeak eskaturik, mendigailur-ren izendegia berriztatzeari hasiera eman zaio.

Bestalde, Gasteizko Ordezkaritzan Erdi Aroko agirietan agertzen diren toponimia bilketa ikerlanari ekin dio lantalde batek.

Argitarapen sailean, "Onomasticon Vasconiae" sortan 3. liburukia plaza-ratu du, hots, Jose Maria Jimeno Jurio batzordekideak, Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Galar izenekoa, Batzordearen aginduz eskualde berbereko Oltzako zendearena prestatzen diharduelarik. Batzordeburuaren ardurapean eta sorta berbererako Gerardo Lopez de Gereñuren Toponimia alavesa, seguido de mortuorios o despoblados y pueblos alaveses eta I. Onomastika Jardunaldiko txostenen bilduma inprentaratu.

Euskaltzaindiaren izenean Alfonso Irigoyen batzordekidea, Irailean, Pisara joan da, patronimiaz Europa mailako ikerketa lanari hasiera emateko asmotan bait daude.

Batzordeak urtean eta Euskal herrian zehar hamar lan bilkura egin ditu, sei Iruñean eta bana, Oiartzun, Uztaritze, Gernika eta Lizarran. Berautan ikerketa, kontsulta eta aipaturiko arlo nagusietatik landa, beste zenbait gai txiki arakatu ditu.

Udalekiko lanei buruz, alde batetik, euskal izenak ofizialtzeko, herri haue-

tako erizpide argibdieak eskaini ditu, hots: Ikaztegieta, Ihorreta, Oiartzun, Plaentzia/Soraluze eta Artziniega. Baita ere Urola Garaiko eskualde izenari buruz, hain zuzen. Bestalde, auzo, kale eta toponomastikazko zenbait itauni ere erantzun zaie, hots, Oteitza, Bilbo, Erandio, Irun eta abarri. Zenbait toponimia azterketaz gidatu edo lagundu du Batzordeak, Erandio, Usurbil, Bilbo eta Andoaingo Udalbarrutiez, hain zuzen.

3.- JAGON Saileko Batzordeak

3.1. LITERATURAREKIKO LANGINTZA

Bi arlotan bana daiteke:

3.1.1. Batzordeak berak zuzenean daramatzanak

3.1.2. Literatura sariketak


3.1.1. LITERATURA BATZORDEA

I. Estilistika Jardunaldiak

Ekintza nagusi bezala, estilistikari buruzko I. Jardunaldiak prestatzea eta burutzea izan da. Gernikako Euskal Jaien mendeurren ospakizunen barnean antolatu dira, bertako Kultur Etxean, hain zuzen.

Juan Luis Zuzeta Gernika-Lumoko Alkatearen agurra eta Luis Villasantek Euskaltzainburuaren sarrera hitzaldien ondoren, txosten hauek irakurri eta eztabaidatu dira, Irailaren 29 eta 30ean, hots:

1. "Estilistikez, hifologiaz eta estiloari buruz", Federico Krutwig Batzordeburuak.
2. "Considerazioni sulla Letteratura Egiziana Antica", Boris Degli Arodi di Rachewiltz printzeak, Erromako Unibertsitate Batikanoaren irakasleak.
3. "Aristotelesen Poietikeaz" testuari buruz, Mikel Agirreazkuenaga Euskal herriko Unibertsitateko irakasleak.



Estilistika Jardunaldiak Gernikan.

4. "Leizarragaren estiloa: estilo goititu batentzako basia", Jesus Lavin Batzorde Idazkariak.

5. "Axularren estilotik", Juan Luis Goikoetxea Txorierriko Institutuko irakasle eta batzordekideak.

6. "Grekoaren eragina Bibliaren itzulpenen bidez", Alfonso Irigoyen Deustuko Unibertsitateko irakasle eta Batzordeburu-ordeak.

7. "Un toro estilista: del diálogo platónico al monólogo de autor", Valentì Gomez i Oliver Erromako Unibertsitateko irakasleak.

8. "Grezi-Erromako idazle klasikoen lanak latin edo greko-euskaraz argitaratzearen garrantziaz", Jon Gotzon Etxebarria Gernikako Institutuko irakasle eta batzordekideak.

9. "Synedrion literatur fisioezko testua", Manu Erzilla batzordekideak.

Batzordearen ohizko ikerlanak. Juan Luis Goikoetxea batzordekideak asmatu-rik, "Erranikakoak" izeneko liburu bat proiektatu da Batzordean tratatzen diren gaiak bildu nahian.

Bigarren etapa bezala, Leizarragaren itzulpena aztertzeari ekin dio Batzordeak. Horretarako hurrengo testu hauek erabili dira, alegia, grekerazkoak: Testus Receptus (Stephanusena, 1550.ekoa), Boverren editionea, Nestle-Aland editionea (26/gn.a); euskarazkoak: Leizarragaren Translationea, Duvoisin Kapitainarena; frantsesezkoak: Bible de Geneve; alemanezkoak: Lutheroren Itzulpena; ingelesezkoak: Authorized Version (King James) eta latinezkoak: Vulgata, Neovulgata.

Hauetaz gain, bstelako liburuak ere erabili dira, hots: Testamentu Berriari buruzkoak, bai konkordantzia, hiztegia eta baita gramatika aztertzeko ere.

Federico Krutwig Batzordeburua, Maiatzaren 19an, Athenetako Graikar Kultur Ikertzapenaren Erakundeko kide izendatu izan da.

Bestalde, Jesus Lavin Batzorde Idazkaria, Bilboko Eliza Ebangelikoaz harremanetan jarri da, liburu mailegatuen bidez, bibliografi zabal eta sakon bati hasiera emanez.

Urtean zehar batzordekideen zenbait txosten eta proposamen eztabadatu dira ohizko bilkura gehienetan. Europako literatura handietako: italiano, frantsez, ingeles eta errusiarren elaberri gailenak komentatu dira.

Gure inguruko hizkuntza minorizatu baten literatur egoera ere aztertu da, alegia: Bernard Manciet idazlearen Destins d'une littérature delakoa, hain zuzen.



3.1.2. LITERATURA SARIKETAK

Zuzenki edo zeharka, Euskaltzaindiari Erakunde eta Elkarte askotatik eskatzen zaizkio epaimahaikideak izendatzea, literatura lehiaketetarako batez ere.

1988. urtean hurrengook azpimarra daitezke, alegia:

. Bizkaiko Aurrezki Kutxak Euskaltzaindiari babestutako sariketa bietako epaimahai eta irabazleak hauek izan dira:

- "Toribio Alzaga" antzerkirako: Juan Luis Goikoetxea, Juan San Martin eta Txomin Peillen. Irabazlea: Xabier Mendiguren Elizegi.

- "Felipe Arrese Beitia" olerkirako: Jean Louis Davant, Alfonso Irigoyen eta Juan Mari Lekuona. Irabazlea: Arantza Aldalur.

. Manuel Lekuonaren izenean, herri Literatura Batzordeak, gai horri buruzko ikerketa saria antolatu du, epaimahaia hauek ostu dutelarik, hots: Alfonso Irigoyen, Juan Mari Lekuona eta Abel Muniategi. Irabazlea: Pello Esnal.

. Eusko Jaurlaritzak antolaturiko Euskal Letren Merezimenduzko sariketarako: Juan Mari Lekuona. Saria Eusebio Erkiagak jaso duelarik.

. Gobernu berak babesturiko Literatura lanak Sortarazteko Lehiaketa erabakitzeko: Patxi Altuna.

. Gobernu Zentralak antolaturiko sariketetan edo lehiaketetan, jaundere hauek ordezkatu dute Euskaltzaindia, hots:

- Jose Maria Satrustegik, "Premio Nacional de las Letras Españolas"

- Ibon Sarasolak, "Premio Nacional de Literatura".

- Endrike Knörrek, "Premio Nacional de Traducción".
- Pakita Arregik, "Premio Nacional de Literatura Infantil y Juvenil".
- Juan Mari Lekuonak, "Concesión de Ayudas a la Creación Literaria".

. Gipuzkoako Aurrezki Kutxak Literatura Unibertsaleko Obren Euskaratzea saritzeko "ORIXE" lehiaketarako: Txomin Peillen izendatu du epaimahaikide.

. Zarauzko Udalak antolaturiko haur eta gazteentzako VII. "LIZARDI" literatur sarirako epaimahaikide: Juan Mari Lekuona hautatu du.

3.2. HERRI LITERATURA BATZORDEA

Batzorde honek bederatzi lan-bilkura egin ditu joan den urtean, denak Aiako Laurgainen.

Bilkura horietan gehienbat erabilitako azter edo iker gaiak, honako hauek izan dira, alegia: herri poesia eta herri narratiba.

Antonio Zavala Batzordeburuak zuzendurik, herri narratiba horren eredu erara, idazle multzo bat ari da liburu mordoxka bat burutzen, belaunaldi baten herri literatura gal ez dadin.

"MANUEL LEKUONA" saria herri literaturari buruzko saiaketakoa antolatu du batzordeak. Euskaltzaindiak jarritako 500.000 pezetako sari hori Pello Esnal jaunak irabazi du.



Manuel Lekuona.

Batzordea hiru edo lau urtetarako lan programa zehatza egiten hasia da, horren barnean euskal metrikaz, lan teorikoa burutuko delarik. Programakuntza horretan koka daiteke 1989. urtean, Billabona-Amasan, antolatuko dituen I. Herri Literatura Jardunaldiak, horretarako lehen urratsak eman dituelarik, gai nagusi, txostengile, data eta abar.

3.3. ETSAMINAK

Zeregin horretarako zegoen Batzordea suntsitua da eta lana erabat murriztua du. Hala eta guztiz ere komenigarritzat jo diren zenbait banakako azterketetara joan dira Euskaltzaindiko ordezkariak.

- Bizkaiko Batzar nagusietako Mahaiak eskaturik, Foru erakunde horretarako itzultzaile lanpostua erabakitzeko, Alfonso Irigoyen joan da Euskaltzaindiaren izenean, epaimahaikide bezala.

- Igorreko Udalak, bertako itzultzaile lanposturako, Isaac Atutxa, Dialektologi Batzordeko Atlasgintzan lanean diharduenak, egin du ordezkoko legez.

- Urduña eta Ugaoko Udaletxeetan egin diren etsaminetan, Ricardo Badiola izan da Euskaltzaindiaren ordezkari.

- Andoaingo eta Usurbilgo Udaletxeetan toponimia bilketarako lanpostu bana erabakitzeko, epaimahaikide bezala egon da Juan San Martin, Onomastika batzordekide eta Gipuzkoako Ordezkaria.

- Euskal Herriko Unibertsitatearen Bizkaiko Irakaslego Eskolan egin diren bizkaierazko gaitasun frogetan, Juan Luis Goikoetxea egon da epaimahaikide bezala.

4.- Akademi Zerbitzuak

4.1. ADMINISTRALGOA ETA BULEGOAK

Eremu hau, erakunde eta jendearekiko harreman eta beste biderapen arazoei arta eta irteera ematen saiatzen da. Orokorki Egoitzatik eta bereziki herrialde batekoak direnean, dagokion Ordezkaritzatik.

Erakunde akademikoei buruzkoak izan dira batzu, batez ere, Estatu eremuko "Real Academia Española de la Lengua", "Institut d'Estudis Catalans", "Real Academia de la Lengua Galega" eta "Academia de la Llingua Asturiana"rekin. Bestelako unibertsital edo/eta kultur erakundeekin ere elkarlan edo harreman ugari izan dira.

Herri aginteen administral erakundeekiko harremanek, garrantzi handia dute Euskaltzaindiaren baliabide eta eginkizunetarako. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntz Politikarako Idazkaritzarekin izandakoak dira emankorrenak, bera baita Autonomi Erakunde amankomunen aginduz, horretarako propioki izendatua. Nafarroako Foru Diputazio edo Gobernuarekin Euskaltzaindiak dituen harremanak, lehendabizikoz hizkuntzarekiko solaskide ofizial bat izan dute, Hizkuntz Politikarako Koordinatzaile izendatua izan baita, Estebe Petrizan jauna. Beste hiru Foru Diputazio eta zenbait Udalekin ere harreman eta argitasun eskari ugari izan ditu. Gobernu Zentraleko Hezkuntz eta Kultur Ministeritzekin ere harreman zuzen eta emankorrak izan dira.

Idazkari-ordetzari dagokionetik, urtean zehar egindako jardunaldi, bilkura, ospakizun eta Euskaltzaindiaren eginkizun ororen plangintza, ibilpide eta eraketa hasi eta bururatu ditu, batzutan zuzenki eta gehienetan, Ekonomi, Biblioteka eta Argitarapenen Eragileen eta administrarien laguntza eskergaz baliaturik. Batzordeen eta programa nagusien langintza ere, bertatik koordinatu da.

Jendearekiko kontsulta, itaun eta posta harremanak, egunetik egunera ugalduta, hor sartzan direlarik, egoera, euskararekiko ikerketa, normalizapen, erakundetze eta beste sailkatu ezinezko puntu asko. Euskaltzaindiaren zeregin akademikoez, funtzionamenduez eta batzordeez, argibide ugari eman da, adibidez: bulegoetara eta Erriberako Bibliotekara, IRALE, HABE eta beste zenbait eskola eta euskaltegitatik taldeak hurbildu dira, beraien hizkuntzarekiko atxikimendu eta jakin nahiak agertuz. Euskal Herritik, zein atzeritik etorritakoek ere, lan premiatsua suposatzen dute Egoitzarentzat eta baita Ordezkaritzentzat ere, azken hauei Arautegiko 34. artikulua egotzen bai die batipat eginkizun hau.

Akademi Egoitza berria aipatzea ezinbestekoa da puntu honetan, zeren eta berak suposatuko baitu Euskaltzaindiaren eginkizun normalkuntzarako aro berri bat. 1988. urtean, proiektu teknikoaren diseinu eta egituratzea eztabaidatu eta onartu du Euskaltzaindiak; Abenduaren 21ean, Gernikako Juntetxean, Bizkaiko Batzar Nagusiak onartu dute, Foru Diputazioak proposaturiko 80.000.000


pezetetako aurrekontua, Plaza Barriko Egoitzaren berriztatze lanetarako. Hil bereko 14ean, Foru Diputazioak, Bilboko Elkano kaleko 5.enean, bien bitarteko bulegoetarako, errentan hartzea erabaki du. Ordezkaritzek beraien lan eta harreman zerbitzuetarako bulego erosoak dituzte Gasteiz eta Iruñean, Foru Administrazioei esker, une honetan, Donostiakoaren egoera estu batetan izanik, baina dirudienez, beste kultur erakunde batzurekin batera, bideratzeko asmotan ari da.

4.2. AZKUE BIBLIOTEKA BATZORDEA

I. EGITURA

Batzorde honek hiru bilera egin ditu urtean zehar, Otsailaren 19an, Uztailaren 19an eta Abenduaren 13an.

Batzordearen Idazkaria eta Bibliotekaren arduraduna den Jose Antonio Arana Martija euskaltzaina izendatua izan zen Urriaren 28an eta Euskaltzaindiaren Diruzain Abenduaren 30ean.



II. LAN ARRUNTAK

Aurten 5.428 sarrera erregistratu dira, erosiak eta harpidetzaz lortutakoak batzu, eta besteak dohainik edo trukez koadroan azaltzen den legez:

Urtea	Erosiak Harpidetzaz	Dohainik Trukez	GUZTIRA
1985	1.640	3.516	5.156
1986	1.376	4.682	6.058
1987	1.590	6.075	7.665
1988	753	4.675	5.428

Hauen balorazioa hau delarik:

Urtea	Erosiak	Harpid.	Trukez	Dohainik	GUZTIRA
1987	1.619.273	115.867	418.955	1.355.010	3.489.105
1988	1.369.601	79.337	756.868	1.062.767	3.268.573

Igaz hasitako plana jarraituz, koadernaketari eman zaio lehentasuna Bibliotekaren liburuak eta aldizkarien bildumak taiutzeko. Aurten 523 tomo koadernatu dira (398, 1987an), tartean Orotariko Euskal Hiztegiaren 75 tomoak direlarik.

Nahiz eta irakurleak adin edo gaiaren arauera mugatzen hasi, igaz baino gehiago izan dira aurten Azkue Bibliotekara etorri direnak, 1.426 guztira eta 48.425 fotokopia egin dira.

III. HARREMAN PUBLIKOAK

Betiko harremanetatik aparte, aurten bereziki aipatu behar direnak hauek dira: Biblioteca Museo Balaguer, Estatu Batuetako Library of Congress, Biblioteca Nacional (Madrid), Hemeroteca Nacional (Madrid), Madridero Kultura Ministeritza, Madridero Hezkuntza eta Zientzia Ministeritza, Nafarroako Unibertsitatearen Biblioteka, Biblioteca General de Catalunya, Bizkaiko Foru Diputazioaren Biblioteka, Gipuzkoako Foru Diputazioaren Biblioteka, Nafarroako Artxibategi Orokorra, Nafarroako Biblioteka Orokorra, Eusko Jaurjaritzaren Bergarako Mikrofilmategia, Tbilisiko Unibertsitatea, Tubingako Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza, Eusko Bibliographia, Etxebarriko Udala, Arrasateko Udala, Eskola Politeknikoa eta Lan Kide Aurrezkia, Iberduero, Labayru Ikastegia, Eusko Jaurjaritza.

IV. APARAILU BERRIAK ETA INFORMATIZAZIOA

Bibliotekaren Batzordeak Uztailaren 19ko bileran aztertu zituen tokiaren egoera eta lanaren beharrezan arauera erosi behar ziren aparailuak. 3.117.059 pezetetako aurrekontu berezi bati esker erosi direnak hauek dira: koadernagailua, desumelgailua, mikrofilm/mikrofitxen armairua, eta mikrofil/mikrofitxen irakur eta kopiagailua.

Bibliotekaren informatizaziorako plana ere aztertzen ari da Biblioteka.

V. ARTXIBO LANAK

Azkueren korrespondentzia ia guztia taiutua da. Aspaldidanik Alfonso Irigoyenek antolatu zuenetik aparte, hainbat gutun agertu dira beste Artxiboko kutxetan eta denak taiutuak dira kutxa berrietan.

Eusebio Erkiaga euskaltzain jaunari zor zaio emaitza baliotsu bat. Ekainaren 21ean ekarri zuen Bibliotekara Azkuek Koloniatik idatzitako gutunen kopiak biltzen dituen koaderno mardul bat, baita ere Ebaristo Bustinza "Kirikiño"k Azkueri egindako gutunen bilduma bat. Publikoki Erkiaga jaunari eskerrak eman behar zaizkio.

VI. KATALOGOAK

Bonaparte Printzearen eskuizkribuen Katalogoa, Euskera 1984,1 alean argitara emandakoa, bigarren argitarapen baterako prestatua izan da. Bigarren argitarapen hau beharrezko da lehena agortua delako. Baina zuzendu eta gehitu beharra ere ikusi da, mikrofilmatzeko eskuizkribu guztiak prestatu direnean, hutsune eta errakuntza nabariak ikusi direlako.

Euskaltzaindiaren erabaki baten ondorioz, Bonaparteren eskuizkribuak mikrofilmatzeko plan bat burutu zen. Bergarako Mikrofilmategian lana egiteko onarpena lortu zenean, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroa Artxiboen arduradunekin harremanetan hasi zen Azkue Biblioteka. Azkenean, Urriaren azken egunean Bergaran bildu ziren eskuizkribu guztiak eta dokumentu guztiak banan banan eta orriz orri egiaztatu ondoren, mikrofilmatzeko sobreetan prest utzi ziren. 1989ko Martxoan fondo guztia mikrofilmatuta izango dela espero da. Eskuizkribu hauen katalogoaren bigarren argitarapenean, mikrofilmen erreferentzia ere emango da.

Eskuartean dabilen beste katalogo bat Juan Carlos Guerrarena da. Lortu zen Arrasateko Udalak eta Lan Kide Aurrezkiak erdi bana argitarapen hau ordaintzea. Baina honetan zegoelarik arazoa, Donostian beste ale batzu familiak zeuzkala jakin ondoren Katalogoan eranskin gisa argitaratu beharko zela fondo

hau pentsatu zen. Lan hau ere ia burutua da eta Katalogo osoa laster izango da argitaratzeko paratua. Bibliotekan dagoen Guerraren fondoa guztia mikrofilmata dagoela esan behar da Bergaran egin bait dute dohainik lan hau.

VII. ERAKUSKETAK

Azkue Bibliotekako fondoekin bost erakusketa antolatu dira aurren:

1. Barcelonako Biblioteca General de Catalunyaako areto baten, Otsailaren 29tik Martxoaren 5erarte Catalunyan argitara emandako euskal liburuen erakusketa.

2. Igaz Azkue Bibliotekak eratu zituen Kartografia Erakusketarako mapak eta planoak erabiliz, Portugaleten eta Errenterian erakusketak eratu ziren.

3. Gernikako Euskal Jaien mendeurrena zelata, eta Gernikako Kultur Etxean, Irailaren 28tik Urriaren 10era, 1880-1900 bitartean argitaraturiko liburuen erakusketa.

4. Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka inguruan, Udalaren Erakusketa Aretoan, Azaroaren 8tik Abenduaren 11rarte, Azkuek Euskalerrriaren Yakintza eta Latsibi elaberria ilustratzeko erabili zituen grabau, irudi eta abarren originalekin erakusketa bat antolatu zen Durangoko Arte eta Historia Museokoekin batera.

Lehenengo eta hirugarren zenbakian agertzen diren erakusketetarako katalogo bereziak prestatu ziren.



4.3. ARGITARAPENAK

Sail honek bi azpisail ditu:

4.3.1. Argitarapenen Batzordea

4.3.2. Argitarapenen Banaketa Zerbitzua

4.3.1. ARGITARAPENEN BATZORDEA

Batzorde honen begipean Euskaltzaindiak 1988. urtean hurrengo liburuok argitaratu ditu, alegia:

1. Euskera agerkaria (1988,1). Patxi Zabaleta Euskaltzaindian sartzea. Orotariko Euskal Hiztegia (1) liburuaren aurkezpena. "Xenpelar" saria 1987. Partizipio perfektu izan-aditz laguntzailea. Coordination sans copule et redoublement expressif á labiale dans certaines langues de la Russie préslave. Kostaldeko gipuzkeraren berri Txanka bertsolariaren bitartez. Zamudioko toponimia. Leku izenen euskarazko formak Nafarroan. Onomastikaz II. Jardunaldiak. Sobre el origen de la Nación Vascongada.

2. Euskararen Lekukoak 14. zenbakiduna: Cristaubaren icasbidea edo doctrina Cristiania. (Juan Antonio Mogel ta Urquiza) Luis Villasantek paratua. Bizkaiko Foru Diputazioak babesturiko argitarapena.

3. Iker 5: Euskararen batasuna: Koldo Zuazo Zelaietak paratua. Euskal Herriko Unibertsitatea eta Euskaltzaindiaren arteko argirakitzan burutua. Liburu honetan XVI. mendetik hona batasunaren inguruan izan diren gorabeherak aztertzen dira.

4. Onomasticon Vasconiae 3: Toponimia de la cuenca de Pamplona. Cendea de Olza. Jose Maria Jimeno Juriok paratua. Nafarroako Gobernuak babesturiko argitarapena.

5. Euskal Gramatika: Lehen urratsak I-II (gai aurkibidea). Gramatika Batzordeak paraturiko lana. Argitarapen honetan Batzordeak buruturiko lanen gaien aurkitegia azaltzen zaigu.

6. Guero. Pedro de Axular. Faksimilez egindako berrargitarapena, berau, Axularrek 1643.an eginikotik burutua izan dugu. Kultur Ministraritzaren babespean argitaratua.

7. Catalunyan Euskal Herriari buruz argitara emandako liburu Erakusketaren Katalogoak.

8. Gernika-Lumo. Euskal Jaien mendeurrena. 1888-1988. Liburu Erakusketa 1880-1900. Katalogoak.

9. Argitarapenen Katalogoak 1988-89. Euskaltzaindiak orain arte kaleratu dituen lanen zehaztasunak dakartzan liburukia.

10. Euskaltzaindiaren Oroit-Idazkia (1987). Euskaltzaindiak 1987. urtean buruturiko egintza eta lanen zehaztasunak eta azalpenak dakartzan argitarape-na.

4.3.2. ARGITARAPENEN BANAKETA ZERBITZUA

Euskera agerkaria, abonatupei banatzen zaie, harpidedun berriak gehituz doaz, hauen artean, Irakaskuntza Zentroak eta Udalak nabarmentzen direlarik. Badira zenbait abonatu baja eman dutenak arrazoi ezberdinengatik, arazo ekonomikoa eta irakurtzeko betarik eza, batez ere.

Urtean zehar 20.500 ale saldu ditu eta dohain edo trukean 1.500 ale banatu: Erakunde, Unibertsitate, Ikastetxe, kultur elkarte, eta aurkezpenetan. Euskal Herrian zehar egiten bada ere gehien bat banaketa, atzerrira ere dezente igortzen dira, eskariak ugarituz doazelarik, hiztegi eta toponimiazko gaiak, batez ere.

Durangoko Azokak: Ohi denez, Durangon, Ekaiaren 10, 11 eta 12an, Euskarazko III. Liburu eta Disko Azoka eta Abenduaren 2, 3, 4 eta 5ean egindako XXIII. Azoka Nagusian izan da Euskaltzaindiaren zerbitzu hau. Azoka hauetan 500 bat liburu saldu dira.

EXPOLANGUES: Erakusketa honetara Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Politikarako Idazkaritzaren bidez parte hartu du Euskaltzaindiak.

LIBER'88: Barcelonan, Irailaren 27tik Urriaren 2ra bitartean, "Palau de la Metalurgia" deritzan Erakustazokan egin da Erakusketa "Fira de Barcelona"k antolaturik eta hurrengo hauen babesarekin: Federación de Gremios de Editores de España, Gremi d'Editors de Catalunya, Ministerio de Cultura, Dirección General del Libro y Bibliotecas, Generalitat de Catalunya, Departament de Cultura, Aiuntament de Barcelona, Instituto Español de Comercio Exterior (ICEX), Secretaría de Estado de Comercio. Eusko Jaurlaritzak, EUSKADI stand bakarrajari du. Erakusketa Nagusi hortara joateko gonbitea, Eusko Jaurlaritzaren Kultura eta Turismo Sailak luzatu dio Euskaltzaindiari eta bertan, Eusko Jaurlaritzak, Legebiltzarra, Foru Diputazioak, Euskal Herriko Unibertsitatea, Eusko Ikaskuntza eta Euskal Editoreen Elkarteak partaide izan direlarik. Banaketa horrekin Euskaltzaindiak 110 liburukiz hornitutako 30 argitalpen titulu eraman zituen, hauez gain, bertan ugari banatuko ziren Argitalpen katalogoa ere bai.

Marokoko Agadirrera bertako Unibertsitateak antolaturiko Liburu Iberiar eta Iberoamerikar Nazioarteko Erakustazokara Euskaltzaindiaren argitalpen sorta berezi bat igorri da.

4.4. ITZULPEN ETA KONTSULTA ZERBITZUA

1988. urtean hogeitamabost itzulpen burutu ditu Euskaltzaindiko Argitarapenen Eragileak. Egindako itzulpenetatik aipagarrienak hurrengo erara banatu ahal dira, alegia:

Erakundeak: Eusko Jaurlaritza, Nafarroako Gobernua, Eusko Trenbideak, Bizkaiko Foru Diputazioa, Bilbo Haundiko Uren Partzuergoa/Consortio de Aguas del Gran Bilbao, Bilboko Nazioarteko Erakustazoka/Feria Internacional de Muestras de Bilbao, Bilboko Apezpikutegia, Telefónica, Cadem, Bizkaiko Ingeniarien Kolegio Ofiziala, Osakidetza, Tabacalera, Universidad Politécnica de Barcelona.

Banku edo Aurrezki Kutxak: Banco Bilbao-Vizcaya, Banco Exterior de España, Bizkaiko Aurrezki Kutxa, Lankide Aurrezki Kutxa.

Udalak: Bilbo, Ugao, Etxebarri, Getxo, Galdakao, Barakaldo, Santurtzi, Iruñea eta Gernika.

Publizitate enpresak: Aurman, Publicidad Síntesis, Estudios Arriaga, Gurruztuga & Etxebarria.

Beste zenbait enpresa eta partikularrak: Iberduero, El Corte Inglés, Imprenta Amado, Gráficas Elkar Sociedad Cooperativa, Fotocomposiciones Rali, Manuel Beiro Buxan (A Crouña), Agrupación Navarra de Astronomía, Agua Mineral Urberuaga, Servicio Medio Ambiente (Iruñea), Gurutze Gorria/Cruz Roja, Dya.

Aldi berean Zerbitzu honek kontsulta erara hurrengo gaiori erantzuna eskaini izan die, bai telefonoz eta baita idatziz ere, Euskaltzaindiaren Egoitzan, hots: hiztegi gintza, euskal gramatika, euskara ikasi eta lantzeko metodologintza, bibliografia, alfabetatze orientabideak, mailakaturiko irakurketa, euskarazko titulua eskuratzeko orientabide eta bibliografia, oposaketetarako prestakuntza hizkuntzari dagokiolarik, eta abar. Ordezkaritzetara ere eskua bota die, beraietara zuzendu diren kontsultak burutzeko.

5.- Ekonomia

5.1. EKONOMI BATZORDEA

Azken urteotan, ohi duen bezala, Batzorde honek gure Erakundeak egin-kizun dituen lan eta asmoek behar dituzten diru-horniketak lortzen ahalegindu da, Herri Aginte, Estatu, Banketxe, Enpresa edo norbanakoen artean.

Esan beharra dago, urtearen amaieran ahalegin guzti horiei esker, ezinbesteko duen diru-horniketa lortzeko bideak aurkitzen aritzen dela Euskaltzaindia. Baina beti heldu ezinean ez ibiltzeko, Herri Aginteekin halako Hitzarmen bat sinatzeko lehen urratsak ematen hasi da, jasoko dituen laguntzen epea ziurtatuz, Aurrekontuaren kudeaketa egoki batez, esku arteko lan eta asmoak behar bezala burutzeko.

Bestalde, Batzorde honen esku dago, beti ere Zuzendaritzaren gidaritzapean, zenbait egitasmo aurrera eramateko, bere garaian, sortu ziren lan taldeen beharrizanak betetzea, bai langile, ordainketa, harreman eta bestelako arloetan.

Bide ezberdinetatik Euskaltzaindiak jaso dituen dirulaguntza eskergaitza zertan erabili izan du jakin erazteko, hona hemen aurtengo Egoera Balantzea:

5.2. 1988. URTEKO EGOERA BALANTZEA

<u>Sarrerak</u>		<u>Irteerak</u>	
1. DIRULAGUNTZAK:			
1.1. Diputazioak	74.163.200	1. Langile gastuak	51.934.564
1.2. Eusko Jaurjaritza	53.511.000	2. Funtzionamendu gastuak	15.299.607
1.3. Estatuko Erakundeak	11.260.000	4. Batzordeak	71.134.948
1.4. Udalak	638.400	6. Inbertsioak	102.504.449
1.5. Aurrezki Kutxak	1.500.000	9. Finantz gastuak	125.477
1.6. Pertsona pribatuak	1.084.540	Argitalpenak	10.205.020
		Hitzartua	11.194.574
		Elkarte partaidetza	300.000
ZERBITZUAK:			
2.1. Salmentak	11.565.449		
2.2. Itzulpenak	12.424		
2.3. Zertifikatuak	1.650		
2.4. Berreskuraketak	1.262.055		
2.5. Bestelakoak			
Maileguak	7.517.399		
Patrimonioa	95.182.521		
Guztira	262.698.639	Guztira	262.698.639

6.- Aurkitegia

EGOITZA

BULEGOAK

Elkano, 5-1. - 48011 BILBO
Tel. (94) 4158155
Arduraduna: Jose Luis Lizundia

AZKUE BIBLIOTEKA

Ribera, 6 - 48005 BILBO
Tel. (94) 4152745
Arduraduna: Jose Antonio Arana Martija

BILTEGIA

Bilbo-Donostia errepidea, z/g, 4,5 km.
Edif. SAGA, 1. solairua
48004 ETXEBARRI (Bizkaia)
Tel. (94) 4406258
Arduraduna: Rosa Mari Arza

ORDEZKARITZAK

ARABA

San Antonio, 41 - 01005 GASTEIZ
Tel. (945) 233648
Ordezkarria: Endrike Knörr

GIPUZKOA

Txurruka, 7-2. - 20004 DONOSTIA
Tel. (943) 428050
Ordezkarria: Juan Mari Lekuona

NAFARROA


Conde Oliveto, 2-2. - 31002 IRUÑEA
Tel. (948) 223471
Ordezkarria: Jose Maria Satrustegi

IPARRALDEA

15 rue Port Neuf - 64100 BAIONA
Tel. 07-33-59256426
Ordezkarria: Pierre Charritton



EKIN ET



YARAI

